

# Filosofia, arbuiaitu?

**G**izakia munduratu izan da. Munduratzeko horretan, kale gorrian, zerua goian eta lurra behean, gizakiok hori baino ez dugu aurkitzen. Ezereza da geratzen zaigun bakarra? Etsipena? Ezdeus horretatik irteteko, gizakiak berezkoa du indarra. Aristotelesen *Metafisikaren* lehenengo liburuan esaten zuen bezala: “Gizaki guztiak izatez dute jakiteko guraria”.

Horrelako baieztapenek indartu egiten dute ideia hau: gizakiak, ares-tian aipatu dugun etsipen horretatik irteteko, badu nahiko aitzakia. Gizakiak, harridurak bultzatuta, bere ingurunea ikertzeari, atzemateari, ekin zion. Gizakiak, gizaki den ez geroztik, aurrean daukan hori, *physis*a, ulertu nahi du. Eta berriro ere ekar ditzagun Aristotelesen hitzak, *Filosofoarenak*: “Gizakiak, orain eta hasieran, lilurarengatik hasi baitziren filosofatzen: hasiera batean, gauza arruntek sortzen duten harriduraren aurrean liluraturik; ondoren, pixkanaka-pixkanaka aurrera egin ahala, gauza konplexuagoen aurrean zalantzan egonik, esaterako, ilargiaren, eguzkiaren eta izarren eta unibertsoaren genesiaren fenomenoaren aurrean”.


Beraz, lilura dago gizakiaren baitan. Lilurak bultzatuta saiatzen gara gure

Hezkuntzan bizitzen ari garena horren isla da. LOMCE legearen baitan, Filosofia irakasgaia geletatik desagerrarazi dute



Juan Ramon Makuso

IRAKASLEA ETA IDAZLEA



Antton Olariaga

galderei erantzuten. Horren adierazle nagusi bat haurraren jarrera da. Errealitatearen aurrean, galderak egiten ditu. Berezkoa du, haurrak, galderaren ariketa. Dialektika sortzen da, beraz, gizakia eta aurrean daukan horrekin. Kezkak sortze bat ekartzen du. Sortzearen ondorioetako bat balio berriak eraikitzea da. Nietzschek, *Honela mintzatu zen Zaratustra* liburuan, haurraren espiritua eraikitzen du, balio berrien eraikitzaile bezala. Moral tradizionala deuseztatu, eta balio berriak sortu. Jolasetik, askatasunetik. Gizakiak sortzen du, inongo baliagarritasunari begiratu gabe. Eta berriro Aristotelesen hitzak: “Baina zalantzan eta liluraturik dagoenak onartzen du ez dakiela (...). Beraz, ez-jakitetik ihes egiteagatik filosofatu bazuten, agerian dago jakiteagatik eta ez inongo baliagarritasunarengatik ekin ziotela ezagutzeari. Eta horren lekuko da gertatutakoa: beharrezko gauza gehientsuak eta dibertsioaren eta bizitzaren atseginerako ezagutzak lortuak zirenean ekin baitzitzaion halako diziplina bat bilatzeari. Argi dago, bada, hau ez dugula beste inolako baliagarritasunarengatik bilatzen”.

Horren ondorioa begi-bistan dago: filosofiak ez du baliagarritasunik. Eta horrek gaur egungo gizartearen zutabe nagusi batekin talka egiten du, denari bere baliagarritasuna bilatzen baitzaio, baita gizakiarengan, zoritxarrez. Hezkuntzan bizitzen ari garena horren isla da. LOMCE legearen baitan, Filosofia irakasgaia geletatik desagerrarazi dute. Aristotelesen hitzetatik, ez da ezer ulertu, eta gaizki ulertze horretatik, Filosofia baztertu egin dute agintariak, eta hein batean, baita gizakiak ere. Eta hori da larriena. Gizakiak, Filosofia bere bizitzatik baztertzeko duenean, uko egiten dio bere izaerari. Filosofiarik gabeko bizitza, ez da bizitza, beste zerbaitekin. ■